

2025eko  
APIRILAK  
7 → 10

# FOKUAN

VI. EDIZIOA

25

Shahid Ziyad

**NEGOZIOA GERRA GARAIAN:  
NOLA ERAIKI  
BAKEAREN ALDEKO  
HERRITARTASUNA**

### **Antolatzailea**

Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzua

Gasteizko Udalaren Kirolaren, Osasunaren eta Garapenerako Lankidetzaren Saila

### **Laguntzaileak:**

HEI Herritartasunerako Eskola Irekia. Herritarren Partaidetzaren Zerbitzua.

Gobernu Irekiaren eta Gizarte Etxeen Saila.

[www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)

**Azaleko argazkia:** © Ricardo García Vilanova



## **EUROPA BILTZAR JAUREGIKO JARDUERAK (Gasteiz hiribidea, 85)**

Sarrera librea izango da tokia bete arte.

3

Sarrera: Ekitaldia hasi baino 30 minutu lehenago.  
Eskuineko alboko atea (iparraldeko sarrera).

## **BISITA GIDATUA ERAKUSKETARA (Andre Maria Zuriaren plaza)**

Erakusketaren ondoan hasiko da bisita,  
jarritako orduan.

Ekitaldi guztiak doakoak dira.

INFO +



[Antolakuntzak ez du bere gain hartuko programako parte-hartzaileen iritzien gaineko ardura]

Andre Maria Zuriaren plaza  
2025eko apirilaren 7tik 28ra bitarte

## ARGAZKI ERAKUSKETA

### *SIRIA ETA SUDAN, GERRA AHAZTUAK* *SIRIA Y SUDÁN, GUERRAS OLVIDADAS*

2011n, arabiar matxinaden lorratzari jarraituz, Siriako herritarrak kalera irten ziren herrialdea irekitzeko eta askatasunak eskatzera. Baxar al-Assaden erregimenak protestak zapaldu zituen, ordea. Jendea espetxeratu, torturatu eta erail zuen. Erantzun gisa, manifestariak armak hartu zituzten, Siriako Armada Askea sortu zen eta gerra zibil odoltsua hasi zen, nazioarteko potentziek xake-taula bihurturik: Errusiak, Iranek eta Libanoko Hezbola miliziak erregimena babestu zuten; aitzitik, Turkia, AEB, Israel, Erresuma Batua, Frantzia, Saudi Arabia, Qatar, Arabiar Emirerri Batuak eta beste herrialde batzuk elkarlanean aritu ziren modu batera edo bestera oposizioko taldeekin edo talde jihadistekin, 14 urteko gerra honetan. Milaka bizitza galdu dira.

Sudango gerrak egungo krisi humanitario handienetako bat eragin du: milioika lagunak etxetik ihes egin behar izan dute Sudango Indar Armatuetako eta Laguntza Azkarreko Indarrak talde paramilitarreko jeneralek elkarri gerra deklaratu ziotenetik, 2023ko apiriletik alegia, boterea banatzeko orduan ados jarri ez zirelako. Herritarren 2018ko iraultzarekin abiarazitako prozesu demokratizatzailea amildu egin zen, beraz. Milaka lagun erail dituzte, eta bizirik dirautenek hastear dagoen goseteari aurre egin behar diote. Besteak beste, Arabiar Emirerri Batuak, Errusia, Egipto, Libia, Ukraina eta Israel gatazkan sartu dira beren interes geopolitiko eta ekonomikoen atzetik: litio- eta uranio-erreserba handiak izateaz gain, Sudan Afrikako hirugarren urre-ekoizlea ere bada.

Erakusketa honetan, ahazturiko bi gatazkak (eta oro har gerrak) biztanleria zibilean dituzten ondorioak ikusten dira, parte hartzen duten potentzien interesen biktima da-eta jendea.



© RICARDO GARCÍA VILANOVA

## Ricardo García Vilanova

(Bartzelona, 1971), *freelance* argazkilari eta bideografoak 25 urtetik gorako esperientzia du gatazka eremuetan eta giza krisialdian, batez ere Afrikan, Ekialde Ertainean eta Europan. Arabiar Udaberrien berri eman du 2011tik Sirian, Libian eta Iraken oinarrituta. Azken urteotan, Ukrainako gerra, Sahel eta Baxar al-Assad agintetik bota ondoren Siriako egoeraren berri eman du.

Bere argazkiak, besteak beste, komunikabide hauetan argitaratu dituzte: *Life*, *Newsweek*, *Time*, *The New York Times*, *The Washington Post*, *The Wall Street Journal*, *The New Yorker*, *Le Monde*, *Liberation*, *Paris Match*, *The Guardian*, *The Times*, *Die Welt*, *Der Spiegel* eta *Stern*. Gainera, hainbat erakunderekin elkarlanean aritu da: Nazio Batuak, Gurutze Gorriaren Nazioarteko Batzordea, Mugarik Gabeko Medikuek eta Human Rights Watch. *Freelance* bideo-kazetari gisa, CNN, BBC, France 24, Al Jazeera, Channel 4, VICE, PBS eta Euronews komunikabideekin egin du lan besteak beste.

*The Wall Street Journal* egunkariak bere hautagaitza aurkeztu zuen 2010eko Pulitzer sarirako eta hainbat erakundek saritu izan dute: World Press Photo, Pictures of the Year (POY), NPPA, International Photography Awards (IPA), PX3, Bayeux Calvados-Normandy Award, Moscow International Foto Awards, Lens Culture, Days Japan International, Mika Yamamoto International Journalist Award eta International Press Club. Bideografo gisa, Rory Peck saria eta bi Emmy sari eskuratu ditu CNNko taldearekin.

[ 7  
APR  
astelehena

11:00 >> Andre Maria Zuriaren plaza  
ERAKUSKETAREN INAUGURAZIOA

**SIRIA ETA SUDAN, GERRA AHAZTUAK**

BISITA GIDATUA ERAKUSKETARA  
Ricardo García Vilanovaren eskutik

6





© RICARDO GARCÍA VILANOVA

## 19:00 >> Europa Biltzar Jauregia

### HITZALDIA

#### **PREPARÁNDONOS PARA LA GUERRA, NUEVAS ARMAS**

Munduaren hegemonia lortzearekin lotutako konfrontazio-ziklo berri bat bizi dugu. Norgehiagoka hori esparru ekonomikoan, teknologikoan eta militarrean egiten da. Gobernuak gastu militarra handitzen ari dira eta teknologia berriak dituzten armetan inbertitzen ari dira. Horren guztiaren ondorioz, armamentu-norgehiagoka kezkarria sortu da, mineral estrategikoak eskuratzeko lehiarekin batera. Izan ere, mineral horiek ezinbestekoak dira gaur egun industria militarrean aplikatutako teknologia berrietarako.

7)

**Hizlaria: TICA FONT**, Centre Delàs (Centre d'Estudis per la Pau J.M. Delàs) erakundearen presidentea eta sortzailea. Hezkuntza ez-formaleko irakaslea, Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionaleko (UNED) tutorea eta ingurumeneko teknikaria izan da Bartzelonako Diputazioan. Aditua da defentsako ekonomian, armen merkataritzan, defentsako aurrekontuetan, industria militarrean, arma berrietan eta segurtasunean.



**Aurkezpena: Susana Alfonso Acebo**, Gasteizko Udaleko Kirolaren, Osasunaren eta Garapenerako Lankidetzaren zuzendaria.

[ 8  
APR  
asteartea

19:00 &gt;&gt; Europa Biltzar Jauregia

HITZALDIA

***LAS GUERRAS COMO NEGOCIO, MÁS ALLÁ  
DE LA VENTA DE ARMAS: RECONSTRUCCIÓN  
Y CONTROL DE RECURSOS***

Gerretan, ez dute denek galtzen. Batzuek badakite horiek sustatzeak eta finantzatzeak onura ekonomiko handiak ekar diezazkiekeela egindako kalkuluaren arabera. Horrela, arma-merkataritzaz gain, gatazka askotan, piztutako indarkeria ez da irizpide militarrekin lotuta egoten. Hori beharrean, suntsipen orokorra eragiteko erabiltzen da gatazka, gerra osteko berreraikuntzaren negozioa eta kaltetutako lurraldearen aberastasun naturalen kontrola helburu izanda. Azken urteotako adibideen artean, Ukraina eta Gaza aipa ditzakegu.

**Hizlaria: JESÚS A. NÚÑEZ VILLAVERDE**, Gatazkei eta Ekintza Humanitarioari buruzko Ikerketen Institutuko (IECAH) zuzendarikidea. Aditua nazioarteko harremanetan, nazioarteko segurtasunean, bakearen eraikuntzan, indarkeriazko gatazken prebentzioan eta mundu arabiar-musulmanean. Ekonomialari eta militar erretiratua da. Nazioarteko Harremanetako irakaslea Comillas Eliz Unibertsitatean izan da, eta International Institute for Strategic Studieseko.



**Aurkezpena:** Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzua.





[ 9  
APR  
asteazkena

18:00 >> Europa Biltzar Jauregia

DOKUMENTALA

**LA GUERRA EMPIEZA AQUÍ**

(Joseba Sanz Arranz, 2019). 65 minutu.

2017ko martxoaren 13an, Bilboko portuan, Bizkaiko suhiltzaile Ignacio Roblesek uko egin zion Saudi Arabiarako armamentua ontziratzeko lanetan parte hartzeari. Armamentua Yemengo gerran erabiltzekoa zen. Ekintza hark mobilizazio soziala piztu zuen, eta Euskadiko armagintza-industriaren eta ekoizpen horren hartzaileen inguruan kontzientzia hartzea eragin zuen. Dokumentala Ongi Etorri Errefuxiatuak eta La Guerra Empieza Aquí (LGEA) elkarteek ekoitzi dute, eta gizarte zibileko hainbat eragileren eta Solidarios Sin Fronteras elkartearen laguntza jaso du.

10





© RICARDO GARCÍA VILANOVA

## 19:30 >> Europa Biltzar Jauregia

### MAHAI INGURUA

### **EUSKADIKO GIZARTE ZIBILA, ANTIMILITARISMOA ETA BAKEAREN KULTURAREN ERAIKUNTZA**

Gizarte zibilaren ahotsak bildu ditugu, egungo euskal industria militarri buruz eta herritarrengandik sortutako jarrera antimilitaristei eta bake-eraikuntzari buruz eztabaidatzeko.

#### **Hizlariak:**

**ALBARO ANTA**, konplexu militar industrialari, kontrol sozial eta polizialari eta gure gizartearen militarizazioari buruz Euskal Herritik alternatibak aztertzeke, salatzeke eta proposatzeke helburuarekin sortutako Gasteizkoak talde antimilitaristako kidea.

**LUIS ARBIDE**, ATTAC (Transakzio finantzarioak zergapetzeko eta hiritarren ekintzarako elkarte) elkarteko eta Ongi Etorri Errefuxiatuak herritarren plataformako kidea. Centre Delàs erakundearen laguntzailea eta aktibista da bertako La Guerra Empieza Aquí batzordean.

**ANA RIBACOB**A, aktibista eta militante feminista antimilitarista, eta migratzaileen eta babes bila datozenen eskubideen defentsan. Emakumeok Gerraren Aurka - Mujeres Contra la Guerra taldeko kidea da. Bertan, Euskal Herritik gerretan dugun zuzeneko inplikazioa aztertzen dute.

**Moderatzailea: AITZIBER PÉREZ DE KARKAMO.** Komunikazioaren esparruan kolaborazioak egiten ditu, batez ere prentsan eta irratan, betiere kazetaritza feministatik, eta hitzaldiak eta aurkezpenak dinamizatzeke lanak ere egiten ditu, bereziki gizarte arlokoak.

[ **10**  
**APR**  
osteguna



## 18:00 >> Europa Biltzar Jauregia

HITZALDIA

### **CONSTRUIR PAZ Y RESISTIR AL MILITARISMO EN TIEMPOS DE GUERRA**

Indarkeriak eta bidegabekeriak suntsitutako munduan, gerrak eta giza eskubideen urraketak gero eta ugariagoak diren munduan, eta potentziek eta herrialdeek nazioarteko zuzenbide humanitarioa zapaltzen duten testuinguruan, nola defenda dezakegu gizakiaren bizitza, nola gainditu indarkeria fisikoa eta egiturazkoa, nola egin aurre militarismoari eta armamentismoari, eta nola lagundu beharrezko baldintzak sor daitezen bakeak, armagabetzeak eta giza duintasunak aurrera egiteko?

12

**Hizlaria: JORDI ARMADANS**, politologoa eta kazetaria. Gatazkei, bakeari eta segurtasunari buruzko gaietan analista eta trebatzailea da; Fundació per la Pau (Fundipau) fundazioko zuzendari izan da, eta bakearen kulturaren, giza eskubideen, elkartasunaren eta justizia globalaren aldeko hainbat GKeri, kanpainari eta gizarte-mugimenduri lotuta egon da. Gizarte zibilaren ordezkari gisa, armagabetzeari eta armen kontrolari buruzko hainbat prozesu diplomatikotan parte hartu du Nazio Batuetan (Arma Nuklearrak Debekatzeari buruzko Ituna, Armen Merkataritzari buruzko Ituna eta Barreiatze Munizioei buruzko Hitzarmena, besteak beste). *Pau. El valor de la vida als nostres dies* (ARA Libres, Bartzelona, 2022) liburuaren egilea da.



**Aurkezpena: Miren Fernández de Landa Ruiz**, Gasteizko Udaleko Gobernu Irekiaren eta Gizarte Etxeen zinegotzia.

**Dinamizatzailea: Naiara López de Munain**, kazetaria.

Konferentzia *streaming* bidez eskainiko da.